

KOSTUEN EGITURA

Gure proiektua aurrera ateratzeko hainbat gasturi aurre egin beharko diegu. Bi taldetan sailkatu ditugu: finkoak eta aldagarriak.

- **Kostu finkoak** ekoizpenarekiko independenteak diren gastuak dira; hau da, gehiago edo gutxiago ekoitzi, kostua beti berdina izango da. Talde honen barruan sartzen dira lokalaren alokairua, telefonoa eta Interneta (telefono konpainia bati) webgunearen hosting-a, langileen soldatak eta makineria.



- **Kostu aldagarriak**, aldiz, ekoizpenarekiko proportzionalki aldatzen dira; hau da, ekoizpena handituz gero, gastuak proportzio berean aldatuko dira. Talde honen barruan sartzen dira gure produktua ekoizteko beharrezko lehengaiak, ura, gasa, argindarra eta hainbat zerga (BEZ, SZ...).

Hasieran kide bakoitzak 2.000€ jarriko ditu. Diru horrekin lehen hilabeteetako gastuak ordainduko ditugu. Finantzazio arazoren bat edukiz gero, kreditu-erakunde bati mailegu bat eskatuko genioke.

Hau izango litzateke lehen hilabeteetako gastua:

KOSTU FINKOAK	
Alokairua	3.000€/hilabete
Hosting-a	4€/hilabete
Soldatak	1.600€/hilabete/langile
Telefono konpainia	40€/hilabete
KOSTU ALDAGARRIAK	
Lehengaiak	16.000€/produktu
Hornidurak	±500€/hilabete